

# Oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripea

## Zamoran: hegazti basati bat konfirmatuta

Antzar bat hilda aurkitu zuten ingurumen-agenteek urtarrilaren 27an Villafafilako Aintzira Handian, Zamoran, Hegaztien Influenta Zaintzeko Programa Nazionalen ezarritako zaintza pasiboari esker, Landetako (Frantzia) birusaren egoera epidemiologikoak berriki izan duen bilakaeraren ondorioz arriskua handitu ondoren.

Azaroaren 27an [Kantabrian](#) eta urtarrilaren 22an [Gironan](#) aurkitutako IAAP H5N8 hegazti basati positiboen beste bi fokuetan bezala, aurkikuntza berri honek, oraingoan ere, aurrekoan bezalaxe, ez du osasun-estatusa aldaraziko: estatu-mailan, "hegazti-gripetik libre" sailkapena mantenduko da. Etxeko hegaztien eta horien produktuen mugimenduari ez zaio mugarik ezarriko.

Kasu horiek hauteman izanak ez du arriskurik ekartzen osasun publikoarentzat. Andui ez-zoonotikoa da:

- ez dio gizakiari eragiten
- ez da transmititzen hegazti-okelaren edo arrautzen kontsumoaren bidez

Gaztela eta Leoneko Juntak, zaintza eta kontrola indartuko ditu eremu horretan, eta egiaztatuko du ustiategietan behar bezala aplikatzen direla biosegurtasuneko neurriak, etxeko hegaztietarako transmisioa saihestu eta etengabeko zaintza mantentzeko helburuekin. Horiek horrela, gaixotasunaren edozein susmo jakinaraziko da.

---

# Oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripea

## Katalunian: 4 hegazti basati konfirmatuta

**Hegaztiak Gironako Aiguamolls de l'Empordà parke naturalean aurkitu zituzten hilda, hegazti-gripearen zaintzarako programa nazionalen ezarritako zaintza pasiboari esker, zeina [Landetan \(Frantzia\) birusaren egoera epidemiologikoaren bilakaera ikusita ezarri baitzen, horrek arriskua areagotzen zuelako.](#)**

[Azaroaren 27an Kantabrian](#) aurkitutako hegazti basati batek positibo eman zuen oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripean, baina kasu bakarra izan zen. Oraingoan ere, aurrekoan bezalaxe, aurkikuntza berri honek ez du osasun-estatusa aldaraziko: estatu-mailan, "hegazti-gripetik libre" sailkapena mantenduko da.

Hori dela eta, momentuz ez da murrizketarik ezarriko etxeko hegaztien edo horien produktuen mugimenduan.

**Kasu horiek hauteman izanak ez du arriskurik ekartzen osasun publikoarentzat. Andui ez-zoonotikoa da:**

- **ez dio gizakiari eragiten**
- **ez da transmititzen hegazti-okelaren edo arrautzen kontsumoaren bidez**

Generalitateak zaintza eta kontrola indartuko ditu eremu horretan, eta egiaztatuko du ustategietan behar bezala aplikatzen direla biosegurtasuneko neurriak, etxeko hegaztietarako transmisioa saihestu eta etengabeko zaintza mantentzeko helburuekin. Horiek horrela, gaixotasunaren edozein susmo jakinaraziko da.

---

## **Agindu berria: hegazti-gripeari aurre egiteko neurri espezifikoak**

MAPAk ministerioaren agindu bat argitaratu berri du (APA/19/2021) gaixotasun horri aurre egiteko neurri espezifikoak ezartzeko.

Hegazti-gripearen Europako egungo egoera epidemiologikoak agerian utzi du birusa hainbat herrialdetatik zirkulatzen ari dela uretako hegazti basatien bidez, iparraldeko hemisferiotik hegoaldeko hemisferiora egiten duten migrazio-ibilbidean zehar.

Aintzat hartuta aurreko epidemia-olatuak ([2005-2006](#) eta [2016-2017](#)), gure kokaleku geografikoak hegazti hibernatzaileen ibilbideekin bat egiten duela eta gure lurraldean hegazti basati migratzaile ugari biltzen dituzten hezeguneak daudela, egokitzen jo da Agindua berriro eguneratzea.

Helburu nagusia biosegurtasuna indartzea da, eta ez bakarrik arrisku bereziko eremuetan, baita zaintza bereziko lekuetan ere.

**Erkidego-mailan, biosegurtasun-neurri murriztaileagoak ezartzeko aukera baloratzen ari da, agintaritzak eskudunak bidezkotzat jotzen badu. Nolanahi ere, erabaki hori birusa gure eskualdean sartzeko eta zirkulatzeko arriskuaren analisi batean oinarrituko da, egoera epidemiologikoaren ondorioz hori egitea beharrezkotzat jotzen denean.**

Udalerrriak eta hezeguneak, **aginduak bere eranskinetan jasotzen dituenak, ez dira aldatu aurreko agindutik; Araban daude, eta hauek dira:**

- **Arratzua-Ubarrundia**
  - **Barrundia**
  - **Elburgo/Burgelu**
  - **Legutio**
  - **Zigoitia**
  - **Salburuko hezegunea**
  - **Zadorrako urtegia**
  - **Santa Engrazia urtegia**
-

# Zoonosi berriei eta bioaniztasunaren galerari buruzko txostena

Europako Parlamentuko Ingurumen, Osasun Publiko eta Elikagaien Segurtasuneko Batzordeak (ingelesez, ENVI) txosten bat argitaratu du duela gutxi, non gaixotasun zoonotikoen igoeraren eta bioaniztasunaren galeraren arteko harremana azaltzen duen.

Azken hamarkadetan zehar, **gaixotasun infekzioso ugari izan dute jatorri zoonotikoa**. Horien artean, **GIB/HIESA, hegazti-gripea, ebola, arnas sindrome akutu larria (SARS) eta egungo COVID-19 koronabirusaren pandemia (SARS-CoV-2)**. Hori horrela, kontzientzia hartu dugu **gaixotasun zoonotikoen agerraldiarekin lotutako arrisku eta ondorio dramatiko**en inguruan.

**Egungo pandemiaren** kausen artean, kontuan hartzen da **bioaniztasunak, basoko bizitzak eta lurraren erabilerak** duten zuzeneko edo zeharkako **rola**.

**COVID-19ari** gaur egun **ematen zaion erantzunak** gaixotasunari **eustea eta lehen mailako arretan** tratamendua ematea izan ditu oinarri, **baina**, beste kasu askotan bezala, **prebentzioa da** argi eta garbi konponbide **eraginkorrena**. Horregatik, hobeto ulertu behar ditugu gaixotasun zoonotikoen agerraldia eta hedapena eragiten duten baldintzak.

Ostalarien, bektoreen, parasitoen eta patogenoen arteko **harremanak hainbat faktoreen eragina** izan dezake, hala nola **bioaniztasunarena, basoko bizitzarena eta lurraren erabilerarena**.

Alde batetik, bioaniztasun aberatsa patogenoen iturri potentziala izan daiteke, baina, bestetik, horren galerak ere transmisioa eragin dezake, patogeno batentzako ostalari egokien kopurua areagotuz. Beraz, **bioaniztasuna zaintzeak gaixotasun zoonotikoen arriskua murrizten du**; izan ere, **espezieak euren habitat naturaletan mantentzen dira, eta, horrela, basoko bizitzaren, ganaduaren eta gizakien artean egon daitekeen kontaktua murriztu egiten da**.

Txostenaren xedea da gai horri buruzko ikuspegi orokorra ematea, eta Europako Parlamentuari laguntzea ulertzen nola eman behar diren gai horren inguruko legeak, Europar Batasunean eta bertatik kanpo.

---

## Hegazti-gripea: Europako egoeraren eguneraketa

Frantziako Nekazaritza Ministerioak ohar bat argitaratu du duela gutxi, eta horren bidez jakinarazi du oso patogenoa den hegazti-gripearen 61 foku detektatu direla, nagusiki eskortako hegaztien abeltegietan. Horietatik 48 Landetan daude.

Europako beste zenbait herrialde bezala, **Frantzia** oso patogenoa den hegazti-gripeari aurre egiten ari da **azaroaren erdialdetik**. Egoera epidemiologikoa **okerrera** egiten ari da herrialde

osoan, baina **batez ere Landetan**. Bertan, Frantziako hegazti-gripearentzako erreferentziazko laborategi nazionalak (ANSES) oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat baieztatu zuen gizentzeko [6.000 ahate zituen Landetako ustiategi batean](#).

**Abenduaren 17an**, Frantzia osoa **arrisku-maila altuan** sartu zen, eta frantziar agintariek **babes-neurri hauek** hartu zituzten, gaixotasuna zabaltzea saihesteko:

- kaltetutako hegaztiak hiltzea
- ustiategiak garbitzea eta desinfektatzea
- babes-guneetan eskortako hegaztien mugimendua debekatzea
- fokuen inguruak zaintzea
- biosegurtasun-neurri indartuak hartzea abeltegietan eta animaliak garraiatzean

Landetan kasuek oso azkar egin dutenez gora, eta **ANSESen** gomendioei jarraituz, Frantziako Gobernuak **prebentziozko hilketak ere** ari da egiten. Hilketa horiek 1 km-ko erradioan ari dira egiten kaltetuak izan daitezkeen espezieak dituzten ustiategietan, eta, palmipedo guztien eta konfinatuta ez dauden eskortako beste hegazti-espezie batzuen kasuan, 3 km-ko erradioan.

Halaber, **MAPAk** beste **informazio-ohar bat argitaratu du** bere webgunean, eta, bertan, **ADNSri** jakinarazitako **fokuen datuak ere eguneratu ditu**. Joan den **abenduaren 9tik gaur arte**, IAAPen **246 foku** jakinarazi dira guztira, gehienbat **H5N8** azpimotakoak, honako banaketa honekin:

---

## [Mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifiko berriak](#)

[MAPAk joan den abenduaren 21ean argitaratu zuen PA/1251/2020 Agindu berria](#), zeinaren bidez mihi urdinaren gaitzetik babesteko neurri espezifiko berriak ezartzen dituen.

Aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoian eta Nafarroan 8 serotipoaren zirkulazioa detektatu ondorengo egoera epidemiologiko berria eta horren ondorioz ezarritako kontrol-neurriak, **MAPAk** honako ezarri du agindu berri honetan:

- 1, 4, eta 8 serotipoen aurrean, eremu mugatuak eta eremu horietan derrigorrezko txertaketa ezartzea: **8 serotipoaren aurrean, eremu mugatu berria eta derrigorrezko txertaketa ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan, Aragoian eta Nafarroan**.
  - Borondatezko txertaketa ezarriko da **arrisku handikotzat** jotzen diren gaixotasunik gabeko eremuetan. Eremu horiek aldatu egin ahalko dira kokapen geografikoaren, faktore ekologiko eta meteorologikoen, eta **bektorearen presentziaren eta banaketaren arabera**.
  - 2021eko martxoaren 31ra arteko aldi baterako epea, mugaketa-eremu berrietan animaliak mugitzeko, immunizaziorako behar adina denbora emate aldera.
  - Txertaketa albaitari baimenduek egingo dute, eta agintari eskudunek kontrolak ezarriko dituzte, kanpaina behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko.
-

# Hegazti-gripea: oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat baieztatu da ahateetan, Landetan

**Frantziako Hegazti Gripearean Erreferentziazko Laborategi Nazionalak (ANSES) baieztatu egin du oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat antzeman dutela Landetan, gizentzeko 6.000 ahateko ustiategi batean.**

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripeak Frantziako hegoaldeko ahate-haztegi horretan antzemandako fokuen baieztapenari buruz. Haztegi horretan, abenduaren 5ean heriotza-tasa handia izan ondoren, ANSESen berretsi egin zen eta Europako araudian oinarritutako zuhertasun-neurriak hartu ziren, alegia: abenduaren 6an 6.000 hegaztiak hil ziren, eta fokuen inguruan 3 kilometroko babes-eremua eta 10 km-ko zaintza-eremua ezarri ziren.

Foku hori baieztatu ostean, aste horretan oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen hiru foku antzeman dira guztira Frantzian; izan ere, beste 2 foku jakinarazi ziren aste horretan bertan: Loira-Atlantikoa departamentuko hezegune batean hilik aurkitutako antzara bat eta Meurthe-et-Moselle departamentuko 3 zisne.

Urriaren 20az geroztik, guztira oso patogenoa den hegazti-gripearen 569 foku baieztatu dira Europan, gehienak H5N8:

- 11 foku hegazti gatibuetan
- 47 foku etxeko hegaztietan
- 511 foku hegazti basatietan

Orain dela gutxi argitaratutako ohar batean, MAPAk jakinarazi zuen oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen foku bat antzeman zela Nojan (Kantabria) hiltorian zegoen belatz handi batean. Egun batzuen ostean, beste informazio-ohar bat argitaratu zuen. Bertan **adierazten zen hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia-ertaina dela, Europako iparraldean eta erdialdean gaixotasun horrek duela gutxi izan duen bilakaera dela eta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol-neurri ezarri ziren**, [APA/2442/2006](#) Aginduaren II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

**Osasun publikoari dagokionez, gogorarazi behar da ez dela arriskutzat hartzen; izan ere,**

- **andui hori EZ da zoonotikoa; hortaz, ez dio gizakiari eragiten.**
- **ez da transmititzen ez hegazti-haragiaren, ez arrautzen kontsumoaren bidez.**

---

## Zoonosia eta mikrobioen aurkako

# erresistentzia: zaintzari buruzko emaitzen 2019ko txostena

**Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Ministerioak (MAPA) duela gutxi argitaratu du 2019ko zoonosiaren eta mikrobioen aurkako erresistentziaren zaintza-programaren emaitzak jasotzen dituen txostena estatu mailan.**

Txosten horretan, **zoonosiaren eta mikrobioen aurkako erresistentziaren zaintza-programaren 2019ko emaitzak jaso dira**, hain zuzen ere honako mikroorganismo eta animalia-espezie hauei dagozkienak:

- **Loditzeko txerriak eta txahalak, urtebetetik beherakoak:** *Salmonella spp.*, *Campylobacter coli*, *Campylobacter jejuni* eta *E. coli* adierazleak, bai eta espektro zabaleko betalaktamasak/AmpC eta karbapenemasak ekoizten dituzten *E. coli* bakterioak ere.
- **Loditzeko txahalak, urtebetetik beherakoak:** *O157 E. coli berotoxigenikoa* (VTEC O157) eta O157 ez diren beste *E. coli* berotoxigeniko batzuk (VTEC no-O157); horiek eragin handiagoa dute gizakien osasunean.

2003/99/EE Zuzentarauak arautu egiten du zoonosien eta agente zoonosikoen zaintza, baita horiei loturiko mikrobioen aurkako erresistentzia ere; zaintza-arlo horiek indartu egin ziren Batzordearen 652/2013/EB Exekuzio Erabakia argitaratu zenean.

Erresistentzia-ehuneko handiena erakutsi zuten mikrobioen aurkakoen **emaitzek antzeko joera izan zuten** EB osoan 2017an; honako hauek dira: +

## 1. **Salmonella enterikoa:**

- Urtebete baino gutxiagoko loditzeko txahalak:
  - sulfametoxazola- % 42,7
  - tetraziklina- % 40,9
  - ampizilina- % 30,0
- Loditzeko txerriak:
  - tetraziklina- % 60,8
  - sulfametoxazola- % 59,1
  - ampizilina- % 54,9

## 2. **Campilobacter jejuni:**

- Urtebete baino gutxiagoko loditzeko txahalak:
  - ziprofloxazinoa- % 52,5
  - azido nalidixikoa- % 52,1
  - tetraziklina- % 39

## 3. **Campilobacter coli:**

- Urtebete baino gutxiagoko loditzeko txahalak: erresistentzia-ehunekorik handiena tetraziklinaren kasuan hauteman zen, % 95,2rekin. Atzetik ditu ziprofloxazinoa, aziko nalidixikoa eta estreptomizina (% 81,0 hiru kasuetan).
- Loditzeko txerriak:
  - azido nalidixikoa- % 52,3
  - ziprofloxazinoa eta tetraziklina- % 51,5

## 4. **E.coli adierazleak:**

- Loditzeko txahalak: tetraziklina, sulfametoxazola eta ampizilina izan ziren erresistentzia-ehunekorik handiena agertu zuten mikrobioen aurkakoak (% 43,8, % 34,4 eta % 29,0,

hurrenez hurren).

- Loditzeko txerriak: tetratziklina, sulfametoxazola eta anplizina izan ziren erresistentzia-ehunekorik handiena agertu zuten mikrobioen aurkakoak (% 52,1, % 42,4 eta % 38,5, hurrenez hurren).

5. **Espekto zabaleko betalaktamasak/AmpC eta karbapenemasak ekoizten dituzten *E. coli* bakterioak:** hala txahalen nola txerrien kasuan, aztertutako mikrobioen aurkako guztiekiko erresistentzia hauteman zen (14, guztira), **kolistina, meropenem eta tigeziklinaren kasuan izan ezik.**

Gerora, datu horiek txertatu egiten dira EBren bakterio zoonosikoen mikrobioen aurkako erresistentziari eta gizaki, animalia eta elikagaien adierazleei buruzko EFSaren txostenetan.

---

## **Hegazti-gripea: oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripean positiboa eman du hegazti basati batek Kantabrian**

**Algeteko Albaitaritza Laborategi Zentralak jakinarazi du oso patogenoa den H5N8 hegazti-gripearen birusa hauteman dutela belatz handi batean, Kantabrian.**

MAPAk ohar bat argitaratu du, eta horren bidez jakinarazi du hiltorian zegoen hegazti basati bat aurkitu dutela Noja udalerrian (Kantabria), Santoña, Victoria eta Joyeleko Paduretako parke naturaletik hurbil. Handik fauna basatia sendatzeko zentro batera eraman zuten, eta, bertan, hil egin behar izan zuten.

Duela gutxi [beste informazio-ohar bat](#) argitaratu zen. Bertan adierazten zen hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia-ertaina dela Espainian, Europako iparraldean eta erdialdean gaixotasun horrek duela gutxi izan duen bilakaera dela eta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol- neurri ezarri ziren. **Hegazti-gripearen Programa Nazionaleko zaintza pasiboa indartzeari esker aurkitu dute hegazti hori.**

Urriaren 20az geroztik, oso patogenoa den hegazti-gripearen 470 foku egiaztatu dira Europan. Horietatik 441 H5N8 azpimotakoak dira. Hegazti hauetan antzeman dira foku horiek:

- 31 foku etxeko hegaztietan
- 7 foku hegazti gatibuetan
- 403 foku hegazti basatietan.

**Osasun publikoari dagokionez, ez da arriskutzat hartzen; izan ere,**

- **andua hori EZ da zoonotikoa; hortaz, ez dio gizakiari eragiten.**
- **Ez da transmititzen ez hegazti-haragiaren, ez arrautzen kontsumoaren bidez.**

---

# Eguneratzea: Hegazti-Gripea azkar zabaltzen ari da European

**EFSAk txosten zientifiko bat argitaratu berri du, eta bertan ohartarazi du hegazti-gripea azkar zabaltzen ari dela European. Horrez gain, jakinarazi du oso arriskutsua dela gaixotasuna lehenago detektatu ez den herrialdeetan sartzea.**

Europako zenbait herrialdek oso patogenoa den hegazti-gripearean 300 agerraldi baino gehiago jakinarazi dituzte 2020ko urriaren 16tik. Herrialde horiek dira, besteak beste, Belgika, Danimarka, Frantzia, Alemania, Irlanda, Herbehereak, Suedia eta Erresuma Batua.

Foku horien eraginpeko hegazti gehienak basatiak dira, baina, ECDCk eta hegazti-gripearean Europako erreferentziako laborategiak egindako txosten berri honen arabera, probabilitate handia dago birusa hegazti basatietatik eskortako hegaztietara igarotzeko.

Agentziak [duela gutxi](#) ohartarazi zuen arriskua zegoela oso patogenoa den hegazti-gripea mendebaldeko Europara zabaltzeko, udan baieztatutako agerraldiak egon baitziren ekialdeko Errusian eta Kazakhstanen, hegazti basatien eta etxeko hegaztien artean. Izan ere, eskualde hori Europara datozen uretako hegazti basatien egiten duten udazkeneko migrazio-bidean dago.

Gogorarazi behar dugu oraingoz ez dela **gizakien artean kasurik detektatu agerraldi berrietan, eta gaixotasuna jendeari oro har transmititzeko arriskuak oso txikia izaten jarraitzen duela.**

Egon daitekeen arriskua aintzat hartuta, beharrezkoa da birusen bilakaera kontrolatzea, osasun publikorako edo animalien osasunerako propietate esanguratsuak dituzten birus berriak edo mutazio genetikoak agertzeko etengabeko arriskua ebaluatzeko.

Hori dela eta, EFSAk hau eskatzen die gaixotasunaren eraginpean egon daitezkeen herrialdeetako agintaritzak nazionalak:

- Hegazti basatiak eta eskortako hegaztiak zaintzen jarraitzeko.
- Gizakiak infektatutako edo hildako hegaztiekin kontaktuan egotea saihesteko kontrol-neurriak ezartzeko.
- Arrisku handiko eremuetan arriskuak murrizteko eta biosegurtasuna indartzeko neurriak ezartzeko.

Foku bat baieztatu da gugandik gertu, Frantzian (Korsika). Horren ondorioz, eta kontuan hartuta hegazti basatien migrazio-bideak gure lurraldetik igarotzen direla, beharrezkotzat jo da **zenbait neurri espezifiko** hartzea EAEko udalerrri batzuetan, [duela gutxi](#) jakinarazi zen moduan.